

Udako Postal

Lehiaketa | Uztailaren 4tik irailaren 5era arte



Gaukoak, Alea Aldizkaria, IAK eta GEU Elkartea elkarlanean

Babesleak / Patrocina:



Laguntzaileak / Colaboran:



Gauekoak aisialdi-programak, Izaskun Arrue Kulturguneak, GEU Elkartek eta *ALEA* Arabako aldizkariak elkarlanean antolatutako udako postal lehiaketa bat da *Postontzi*.

Teknologia aurrera doa, baina... ¿Noiz bidali zenuen azkeneko aldiz postal bat?

Mundu digital honetan, dena azkarregi doa. *Postontzik* geldialdi bat egitera eta analogikora itzultzeraz gonbidatzen gaitu: benetako gauzetara, ustekabe atseginetara.

Aurtengo gaia: "Udako sekretuak"

Ez kutuko txoko hura, udako maitasun istorio bat, lehen aldiz zerbait probatu zenuen unea, edo zu bakarrik dakizun anekdota bat... Kontatu iezaguzu postal baten bidez!

Mendi tontor batetik zein zure balkoitik... bidali postal original, polit, misteriotsu edo desberdina. Asmatutako istorio bat idatzi dezakezu, sekretu bat, BIC boligrafoz marrazki bat egin edo zuk bakarrik dakizuna bat partekatu.

1. GAIA:

Udako sekretuak.

2. PARTE HARTZAILEAK:

- 16-30 urte (biak barne) izatea.
- Gasteiztarra izan edota Gasteizen bizi, ikasi edo lan egin.
- Ez dira taldean aurkeztutako lanak onartuko.

3. PARTE HARTZEKO EPEA:

- Uztailaren 4tik irailaren 5era arte.

4. LEHENENGO KATEGORIA: Postalen bidalketa

Bidaliguzu udan zauden tokitik postal bat!

Postalak helbide honetara bidali beharko dira:

GAUEKOAK

Calle San Vicente de Paúl N°21, bajo

Vitoria-Gasteiz, Álava CP:01001

- Testua euskaraz izan behar du.
- Zuen parte-hartzea bermatzeko, postala bidetik galtzekotan, bidaliguzu postalaren bi aldeetako argazkia **info.gauekoak@gmail.com** helbidera.

Mezuan agertu beharreko datuak: Izen-abizenak, telefono zenbaki bat, postalaren izenburua eta postalaren argazkiak bi aldeetatik.

Parte hartzeko modua:

1. **Sortu edo lortu postal bat:** Zuk zeuk egin marrazki, argazki, collage batekin... edo erosi.
2. **Idatzi zure udako istorioa:** Erreala edo asmatua izan daiteke. Marrazki, argazki, zirriborro edo bururatzen zaizunarekin lagundu dezakezu.
3. **Itsatsi zigilu bat:** Bidalketarako ezinbestekoa da!
4. **Bidali mezu bat** info.gauekoak@gmail.com helbidera. Bertan, adierazi zure izen-abizenak, telefonoa eta postalaren argazkia (galduko balitz, segurtasun gisa).
5. **Bilatu postontzi hurbilena eta bidali posta bidez.**
6. Eta orain... **itxaron, postala iritsi arte!**

5. BIGARREN KATEGORIA: Irudia + Izenburua

Zure uda postal bihurtu.

Parte hartzeko modua:

1. **Sortu postala** nahi duzun formatuan: argazkia, ilustrazioa edo marrazkia.
2. **Igo Postontzi atalean**, Arabako ALEAren webgunean, eta gehitu izenburua.
3. **Bi irabazle** egongo dira: bat herritarren bozkaren bidez aukeratua eta bestea epaimahaiak hautatua.

6. EPAI MAHAIA ETA EPAIA

- Aurkeztutako lanak Gauekoak, Arabako ALEA, GEU Elkarte eta Izaskun Arrue Kulturguneko ordezkari banaz osatutako epaimahaiak baloratuko ditu.
- Originaltasuna, testuaren kalitatea eta euskararen erabilera egokia baloratuko dira.
- Bidali daitezkeen postal kopurua mugagabea da. Hala ere, egile bera irabazle izanez gero behin baino gehiagotan, sari bakarra jasoko du.

· Epaia 2025eko irailaren 15ean jakinaraziko da.

7. SARIAK:

→ **LEHENENGO KATEGORIA:** Postalen bidalketa.

Bi saridun:

- 5 eguneko Interrail Global Pass bat.

→ **BIGARREN KATEGORIA: Irudia + Izenburua**

Bi saridun:

- 4 pertsonentzako Grosso Napolitano pizzerian bazkari edo afari bat.
- Kamara analogiko bat.

* Irabazleak ezingo balu sariaz gozatu, hirugarren pertsona bati emateko aukera izango du antolakuntzarekin horrela adostuz gero.

8. IRABAZLEEN BETEBEHARRAK.

Irabazleek beren postalen atzean dagoen istorioa edo sorkuntza-prozesua kontatuko duten bideo labur batean parte hartzeko konpromisoa hartzen dute. Bideo hori **"erakusketa efimero"** baten parte izango da, sare sozialen bidez zabalduko dena. **Lehiaketan parte hartzeak baldintza hauek onartzea dakar.**

9. OHARRAK.

- Aurretik aipatutako puntuekin edozein zalantza argitzeko, jarri gurekin harremanetan info.gauekoak@gmail.com helbidean.
- Aurkeztutako postalak Gauekoak programaren esku geratuko dira eta erabiltzeko eskubidea beretzat gordeko du, betiere egilearen izen-abizenak aipaturik.
- Lehiaketaren antolatzaileak bidalitako lanen batean baldintzak betetzen ez direla edota lanak kutsu iraingarria duela ikusten badu, automatikoki lehiaketatik kanpo geldituko da eta ez da argitaratuko.
- Parte hartzean, aipatutako oinarriak baita epai mailaren erabakiak ere onartzen dira.
- Antolatzaileek bere esku izango dute oinarri hauetan jaso ez den edozein gorabehera ebaztea.

Tratamenduaren arduraduna Responsable del tratamiento	Vitoria-Gasteizko Udala - Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz (IFK- CIF: P0106800F)
Tratamendua egingo duena Encargado del tratamiento	IKUDEA XXI S.L.
Tratamenduaren arduradunaren kontaktu datuak Contacto del Responsable del tratamiento	Calle Pintor Teodoro Dublang kalea, 25 01008 Vitoria-Gasteiz, Álava 945 161 616 - informacion@vitoria-gasteiz.org - www.vitoria-gasteiz.org
Datuak Babesteko Ordezkararen kontaktu datuak /Contacto de la Delegada de Protección de Datos	dbo-dpd@vitoria-gasteiz.org
Tratamenduaren xedeak Finalidad del tratamiento	Gasteizko gazteentzako kultura eta aisialdi sortzaile, osasungarri eta parte-hartzailea sustatzeko programaren (GAUEKOAK) kudeaketa. Gestión del Programa de Cultura y Ocio Creativo, Saludable y Participativo de las personas jóvenes de Vitoria-Gasteiz, GAUEKOAK.
Tratamenduaren legitimazioa edo oinarri juridikoa Legitimación o base jurídica del tratamiento	DBAOk 6.1.a) artikulua: Interesdunak bere datu pertsonalak tratatzeko adostasuna eman du helburu zehatz bati edo gehiagori begira.
	Artículo 6.1.a) RGPD: El interesado dio su consentimiento para el tratamiento de sus datos personales para uno o varios fines específicos.
Hartzaileak Destinatarios	Datu pertsonalik ez zaie hirugarrenei lagako.
	Los datos no serán cedidos a terceros.
Gordetzeko epea Plazo de conservación	Datuak gorde egingo dira, jaso ziren xederako eta/edo xede horretatik eta datuen tratamendutik erator litekeen erantzukizun oro preskribatzeko lege ezarritako epeak iraungi bitartean. Horrez gain, gorde egongo dira baita pertsona interesatuarekin izandako harremanetik eratorri litezkeen erreklamazioak egiteko edo horietatik babesteko aurreikusitako epeak iraun bitartean. Orobat, artxibategi eta dokumentazioari buruzko araudian xedatutakoa aplikatuko zaie datuei.
	Los datos se conservarán el tiempo necesario para cumplir con la finalidad para la que se recabaron y/o durante los plazos legales previstos para la prescripción de cualquier responsabilidad que se pudiera derivar de dicha finalidad y del tratamiento de los mismos. Igualmente, se conservarán durante los plazos previstos para el ejercicio o la defensa de reclamaciones derivadas de la relación mantenida con la persona interesada. Asimismo, les será de aplicación lo dispuesto en la normativa de archivos y documentación.
Pertsonen eskubideak Derechos de las personas	Datuak babesteko delegatuaren bitartez, pertsona interesatuak datuak ikusi ditzake, aldatzeko eskatu, edo, hala behar bada, datuak ezeztatze eskatu, horien kontra agertu edo tratamendua mugatzeko eskatu.
	Las personas interesadas pueden acceder a sus datos, solicitar su rectificación o, en su caso, supresión, oposición o limitación de tratamiento, a través de la Delegada de Protección de Datos.

